

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresan izango ditugun kostuak hauek dira:

Gure enpresa, dohainik emango diguten lokal batean ekoitziko du. Lokal honetan, kostu bat finko bat izango dugu argindarraren truke eta aldakor bat ere, ekoizpenaren arabera. Azkenean, makinaria bermatzeko beharrezkoa da. Azken hau ere kostu finko bat sortuko digu.

Lokalaren barruan, altzari asko berrerabiliko ditugu: familietatik, zakarrontzitik, lagunetatik, etab. Hau beti egingo dugu ingurumena hobeto zaintzeko eta produktu berriak ez erosteko, gure helburua baita. Horretaz gain, ordenagailuak eta mobilak beharko ditugu, lpe kostu bat sortzen. Azken hauek, WiFi sare bat behar dute, kostu finko berri bat izaten.

Ekoizteko, osagai batzuk behar izango ditugu: plastikoa, panel foltovoltaiko txiki batzuk, etab. Osagai hauek gure lokalera heltzeko, garraioa ordaintzea beharrezkoa izango da, kostu aldakor berri bat sortzen. Gainera, gure produktua ekoiztuta egon eta gero garraio berri bat ordaindu beharko dugu.

Enpresa honen bazkideak, soldata finko bat izango dute hilabetero, beti bermatzen lanbideen arteko gutxieneko soldata. Hortik gehituko egingo da kopuru bat diru-sarreraren arabera.

Bukatzeko, gure produktuaz jendea jakiteko, publizitatea sortuko dugu telebistako iragarkietan eta irratan gure produktua ateratzen. Hori kostu berri batzuk sortuko ditu.